

# BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

## Eskola giroaren euskalduntzea

Euskal Herriko ikasgelak euskalduntzeko azken hogeita bost urteotan egin den lana ikaragarria da. Baina zer hizkuntza erabiltzen dute umeek euren arteko harremanetan, jolas garaian, eskolarako joan etorrietan? Kezka honi erantzun egokia emateko, besteak beste, 1984an NOLEGA programa sortu zen. Bere egitekoa hezkuntza munduko hiru esparrutan - eskola giroa, ikasleen arteko harremanak eta hezkuntza administrazioa- euskara hizkuntza normal eta ohizko bihur dadin planak eta ekintzak diseinatu, antolatu eta bultzatzea da.

**1. Eskola giroaren euskalduntzea.** Ikasgela barruan eskolak emateaz aparteko eremuari deitzen zaio eskola giroa. Giro hori euskalduntzeko hauek dira NOLEGAK eratu dituen ekintzak:

- **Euskal girotze barnetegiak.** Euban, Gaztelun, Alkizan eta Elgoibarren. Astebeteko edo biko egonaldiak erdal giroko umeentzat. Dagoeneko propio sortutako hainbat material dago: Euska1 girotze egonaldietarako eskuliburua eta bi bideo. Aurten Euskal girotze barnetegiak argitaratuko da.

- **Eskola antzerki, bertso eta kantagintza.** Ekintza hauek

sustatzeko dirulaguntzak ematen dira. Eskola antzerkia 1, 2 eta 3 liburuak eta I. eta II. Gidoi bildumak sortu dira.

- **Urruzuno literatur lehiaketa.** Irakasmaila ertaineko ikasleei zuzendua. Otsail-martxo inguruan aurkezten dira lanak. Europan zehar ibiltzeko 20 bidarekin saritzen da eta 35na mila pezetarekin. Lan sarituen bilduma argitaratu ohi da urtero.

- **Errotulazioa.** OHOk eta irakasmaila ertaineko herri ikastetxe guztiak errotulatu dira barrutik eta erdia inguru kanpotik. Herri ikastetxeen barne errotulaziorako eskuliburua argitaratu da.

- **IKE laguntza deialdiak.** Jolastoki, sarrera-irteera, etxetik eskolarako autobus ibili eta abarretan propio euskararen erabilera bultzatzeko eratzen


diren ekintzetarako dirulaguntzak. Ikasturte hasieran eskatu behar dira. Orain bi urteko ikasturtean 44 ikastetxek eskatu zuten. Iaz 61ek.

- **Barriola deklamazio lehiaketa.** Abendurako izena eman behar da eta Aste Santurako kasetea grabatu eta bidali. Saria: zubi bat Ipar Euskal Herrian ikasgela osoarentzat eta kasete bat bilduma gisa.

**2. Euskararen erabilera eskoletan.** Euskara ikasleen arteko harreman hizkuntza izan dadin ekimen desberdinak bultzatu dituzten ikastetxeen esperientziak biltzen dituen liburua argitaratu zen 1991n: Eskola hiztun bila.

**3. Hezkuntza administrazioaren euskalduntzea.** Langiroko Trebakuntza, gerora ALET bilakatu zena diseinatu zen. Hezkuntz administrazioarako behin-behineko hiztegia argitaratu zuten.

### URRUZUNO LITERATUR LEHIAKETA



# Jeni Prieto, Maritxu Berritsu gasteiztarra

Baliteke arratsaldean irratia piztu eta Maritxu Berritsurekin topo egin izana. Euskal Herriko neska-mutikoen artean Jeni Prietoren ahots bero eta pausatua entzungo zenuen.

Jeni Prieto, 38, Gasteizen jaio zen eta Arabako hiriburuan bizi da. Hamabost urte zituela, euskara ikasteari ekin zion buru-belarri. Ikasten hasi eta lehen ikastaro trinkoa amaitu bezain azkar irakasle izatea proposatu zioten. Esan eta egin. Gau Eskolan, institutuan, fakultatean, AEKn eta HABEn irakatsi zuen euskara.

EITB sortu aurretik aurkezleak eta bikoizlariak trebatzeko lehen ikastarora joan, gustatu eta handik lasterrera Euskadi Irratian hasi zen lanean. 1985ean Maritxu Berritsu



Jeni Prieto

jaio zen, artean Arabako umeentzako irratsaioa. Bost urtez iraun zuen.

1991n berriz antenaratu zen, oraingo honetan Euskal Herriko neska-mutiko guztiei zuzendua. Aldi berrian Gurutze Ertzibengoaren laguntza du eta Xabier Etxaniz eta Manu Lopez idazleen lankidetzan. Hala ere, umeak -20 bat fijo dira nagusi Maritxu Berritsun, eurek eginak dira- eta elkarrizketak, erreportaiak, kantuak eta ia saio osoa.

Horiez gain, asko dira telefonoz edota bertaratuz esku hartzen dutenak.

Jenik gauza gehiago egin nahiko lituzke. Gustora dabil hala ere eta Euskal Herriko gaztetxoek irratia entzuteko eta Maritxu Berritsun parte hartzeko gonbitea luzatzen die.

## Euskara bakarka Ikasteko

Jose Antonio Mujikak euskara ikasteko Bakarka metodoaren 4. liburua argitaratu berri du Elkar argitaletxearen eta Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen eskutik.

Bakarka euskara irakaslerik gabe eta euskaltegitik kanpo ikasi nahi dutenentzat egina da. Laugarren liburu hau Juan Antonio Letamendiak egin eta Eusko Jaurlaritzak argitaratutako aurreko hiruren segida da, bai edukien programazioan eta baita metodologian ere. Liburu honen edukiak Hezkuntza Sailak Batxilergorako ezarritako V. eta VI. mailen artean kokatu ditu egileak.

Ariketak, testuak, esaerak eta hiztegia testu idatzien ulermena eta adierazpena lantzeko moldatu dira batipat. Liburu gomendagarria euskara bere kasa ikasi nahian dabilenarentzat.

**Narbaitz euskaltegia Baionan.** Baionako Gau Eskolak Narbaitz euskaltegia ireki berri du Baionan bertan. Baionako bizilagunen artean euskararen ikasbidea errazteko ahalik eta aukera zabalenak eskaintzea du helburu. Hori lortzeko, eskolez gain, euskal liburutegia antolatzeko asmoa agertu dute, ikasleek irakurtzeko plazerra bereganatzen.

**Liburutegietan ere euskaraz.** Bada Sabini izeneko enpresa bat liburutegien automatizazioaz arduratzen dena. Orain dela gutxi enpresa honek bere sistema osatzen duten pantaila guztiak euskarazteari ekin dio. Lan hau bukatutakoan, sistema horren jabe diren liburutegietako bezeroek hizkuntza aukeratu ahal izango dute irakurri nahi duten liburuaren kontsulta egiteko orduan.

**Euskararen Aholku Batzordeak** arreta berezia eskaini dio lan munduaren euskalduntzeari horretarako berariaz egindako txostenean. Herri administrazioari bere eginbeharrak bete ditzala gogorarazten dio. Lan munduko partaideei hizkuntza normaltzeko pausuak ahal den neurrian ematea eta herritarrei euskarazko zerbitzuak gehiago eskatzen saiatzea eskatzen die.

**"Hizkuntza etnizitatea eta abertzaletasuna".** Anthropos argitaldariai Jose Migel Apaolaza doktorearen lan hau argitaratu berri du bere "Cuadernos de Antropología" bilduman. Bertan Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak Arabako Agurain hartzen du aztergai eta euskararen berreskurapena, etnizitatea eta abertzaletasunaren artean dagoen lotura aztertzen du modu sakonean.

# Napartheid komikiak euskal argota hatu eta zabaldu nahi du

Napartheid euskal komikiak Iruñean sortu zela bost urte bete direnean, Banu Iqasi bilduma plazaratu du. Artista euskaldun gazte hauek komikietan erabiltzeko moduko euskal argotik euskara batuan inon bildurik ez dagoela eta, euskalki desberdinetan dagoena batu eta komikien bidez gazte euskaldunen artean zabaltzeko asmoa azaldu dute. Horretarako Banu Iqasi -Erriberako Banu Qasi musulman euskaldunen omenez bilduma fotokopiatua prestatu dute. Bertan adierazten dutenez, mendeetan zehar euskaldunek sortu dituzten argot eta hizkera moduak jorratu nahi dituzte: ijito eta buhame euskaldunen erromintxela esate baterako, kalean esan ohi diren hitz larriak, laidoak, irainak eta madarikazioak adibidez, Erronkariko euskaran jasota legokeena, toka, noka, zuka edo berorika landutako formak... Hasteko onomatopeia mordoia bildu dute bost orrialdetan.

Napartheid komikia Iruñeko marrazkilari gazte talde batek sortu zuen 1988an. Gaur egun Euskal Herriko herrialde guztietako berrogei bat marrazkilarik azaltzen dituzte euren lanak eta lauorgeri bat laguntzailek egiten dute lan bertan, denek ere musutruke. Bost urteren bueltan 11 zenbaki argitaratu dituzte eta, erraza izan ez bada ere, maiztasuna finkatzea lortu dute. Urtean hiru aldiz plazaratzen da, aldiko 3.000 alerekin. Saldu egiten da eta gehienetan agortu ere bai.

Komikiaz gainera, beste produktu batzuk ere sortu dituzte urte hauetan. Gateau Basque gehigarri txikia eta goian aipatu dugun Banu Iqasi. Horrez gain, eratu duten Zilo handi sarea banaketaz arduratzen da.

Norbaitek lagundu nahiko balieke euskara jatorra biltzen eta hedatzen, helbide honetara idatz diezaizela: Napartheid, Bergamin, 11 - 2.a esk., 31003 Iruñea. Tfnoa.: (948) 15 14 82.

**Kepa Altonaga, 35,** bilbotarrak, arrakasta handiz zuzendu ditu Udako Euskal Unibertsitateak Baionan eta Iruñean egin dituen XXI. Udako Ikastaroak. Doktorea Biologian EHUn, bertako irakaslea da Zientzi Fakultateko Animalia, Biologia eta Genetika Sailean. Baita bertako euskarako deleanordea. Artikulu askoren egilea zientzi aldizkarietan, 1991n Iñaki Irazabalbeitia ordezkatu zuen UEUko zuzendaritzan.

**Georg Kremnitz,** filologo alemana Ikasketa Okzitanoen Nazioarteko Elkarteko lehendakaria izendatu dute elkarte honek Gasteizen egin duen kongresuan. Vienako Unibertsitateko Filologia Erromanikoko irakaslea da.

**Angeles Libano, 44,** irakasleak "Erdi Aroko toponimia Euskal Herrian" ikerketa lana egin du. Filologia Espainiarreko irakasle titularra da Euskal Herriko Unibertsitatean.

## Bizkaieraren lekua gaur

Deustuko Unibertsitateak argitaratu duen liburu honetan Rosa Miren Pagolak, Joseba Lakarrak, Alfonso Irigoienek, Abel Muniategik, Laura Uruburuk, Roman Berriozabalek eta Igone Etxebarriak euskara batuaren eta bizkaieraren arteko harremanak, istilutsuak sarri askotan, aztertzen dituzte.



EUSKARAREN BERRIPAPERARA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

**Hizkuntza Politikarako  
Idazkaritza Nagusia  
Wellingtongo Dukea, 2  
01011 Vitoria-Gasteiz (Araba)**

Euskaraz     Gazteleraz

Izen-deiturak: .....  
Helbidea: .....  
Herria: .....  
Kodea: .....  
Lurraldea: .....  
Tel.: .....

## Galdezka

### Hizkuntzaren kalitatea

**G.** Zer deritzozu Bernardo Atxagak hizkuntzaren kalitateari buruz esanikoari?

**E.** Atxagak somatzen dituen aje eta akatsei buruzko gogoetarekin guztiz bat nator. Lehenik ere esana dut euskara erasotua ikusten dudala. Euskararen aurkako trakeskeria eta narraskeriek ez diote batere onik egiten hizkuntzari. Euskara ahulegia da tamaina horretako erasoak nozitzeko.

Baina egjari zor zaion guztia aitortuz, beste hau ere esan nahi dut: euskaraz burututako zein erdaretatik itzulitako ongi egindakoak ere ugalduz doazela egunetik egunera. Hortaz itxaropentsu ikusi behar dugu geroa.

Arazoa hor dago. Korapilatsua da. Horregatik beharrezkoak diren neurriak hartu egin behar dira, aurrerantzean euskara jator, joria, txukun eta ulertteraza erabil dadin herritarrei zuzendutako mezu idatzi eta ahozkoetan. Ahalegin sakona egiteko gogo eta asmoa ez da falta.

M. Karmen Garmendia.

Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia

### Kutxan euskara sustatzeko plana aurrera doa

Gipuzkoa-Donostia Kutxa (1.680 langile) bere eguneroko jardunean euskara bultzatzeko plana lantzen hasi da Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiarekin, HABErekin eta Elhuyar Kultur Elkartearekin batera.

Plan honek euskararen erabilera sustatzea du xede; enpresaren barneko eta kanpoko harremanetan. Planari ekin aurretik bi urrats ematen ari dira:

- **Bideragarritasun azterketa.** Goian aipaturiko erakundeak *Kutxa* osoaren aurreazterketa egiten ari dira plana martxan jartzeko modurik egokiena zein den aztertuz. Ondoren planaren jarraipena egiteko osatu den batzordeari txostena aurkeztuko zaio aztertu eta onar dezan.

- **Planaren diseinua.** Bideragarritasun-azterketaren emaitzen argitan, plana diseinatu eta martxan jarriko da. Enpresa aztertu eta abiapuntua zein den ezagutu ostean, helburuak mailakatu eta epe labur, ertain eta luzean lortzeko modukoak izan daitezkeen helmugak definituko dira. Helburuak ez dira euskara ikastea, itzulpenak egitea, etab. Horiek, helburua (euskara gehiago erabiltzea, alegia) lortzeko bitarteko baina ez dira eta hori lortzeko beharrezko diren neurrian balearrak erabiliko dira. Hizkuntza aldaketa prozesuaren konplexutasuna kontutan izanda, garbi dute denek plan hau burutzeko enpresaren alde guztien adostasuna eta inplikazioa ezinbestekoak direla.

## ✓ Kontutan hartzeko

- **AEDren 10. urteurrena dela eta, Arrasateko elkarteak "Euskararen erabilerarako herrietako elkartei buruzko jardunaldiak" antolatu ditu urriaren 30ean eta 31n Arrasaten bertan. Euskara herri mailan bultzatzeko sortu diren talde gehienak hantxe izango dira.**
  - Nafarroa Oinez 93 ekitaldirako prestaketak ia

amaituak izango dituzte honez gero Altsasuko euskaltzaleek. Urriaren 24an izango da Altsasun bertan. Biltzen den dirua Nafarroako eta Iparraldeko ikastolei emango zaie.

- Ekin euskarari, HPINen erakusketa ibiltaria Gipuzkoara itzuliko da berriz. Urriaren 1etik 10era Lezon izango da eta 15etik 24ra bitartean Legazpian.

**EUSKO JAURLARITZA**

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA  
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



**GOBIERNO VASCO**

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA  
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜÍSTICA